

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**93/2025 Erabakia, otsailaren 18koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea aurreikusi ezin diren egoeretan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren ezusteko eta larrialdiko obrei aurre egiteko dirulaguntzaren 2025eko ekitaldiko deialdiari**

Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, haren 5.1 artikuluan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz lortutako urteko zuzkiduratik, gehienez ere ehuneko 6a premiazko eta ustekabeko obrak finantzatzeko gorde ahal izango da.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei sortzen zaizkien premiazko ezusteko gastuak eta larrialdi obrak finantzatzen laguntzea. Oro har ustekabekotzat jotzen dira betebeharrak ekonomiko hauek: aurrekontuan kreditu nahikorik eduki ez eta toki erakunde horiek, premiazko egoerak izanik, berehala finantzatu ezin dituzten betebeharrak ekonomikoak, baldin eta haiek ez betetzeak pertsonak arriskuan jartzen baditu edo jarri ahal baditu.

Halaber, seigarren apartatuan, zortzigarren xedapen gehigarri horrek ezartzen du Arabako Foru Aldundiak laguntza horien oinarri arautzaileak onetsiko dituela, baita urteko deialdiak ere, zeinak hurrengo aurrekontu ekitaldira arte luzatu ahal izango baitira.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 1eko 24/2024 Foru Dekretuaren bidez, oinarri orokorrak onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratu ziren, 117. zenbakian, 2024ko urriaren 14an (astelehena).

Kontuan hartuta Arabako Lurralde Historikoko 2025erako aurrekontua 19.389.126,00 eurokoa dela 2025. urterako, ekitaldi bakoitzean gorde beharreko gehieneko zenbatekoa 1.163.347,56 eurokoa da. Hala ere, 2025. urtean 350.000,00 euro esleitzea proposatzen da.

Hori guztia, alde batera utzi gabe zenbateko hori 2026ko ekitaldira birbanatu ahal izango dela, dagoen aurrekontu saldoaren arabera eta 2025eko abenduaren 31n amaitu gabe dauden jarduketan eskaerarako obrak egiteko epearen aurreikuspenaren arabera, kontuan hartuta 24/2024 Foru Dekretuaren zortzigarren oinarrian eta erabaki honen I. eranskinaren zazpigarren apartatuan adierazitakoa.

Era berean, hasieran esleitutako zenbateko hori handitu egin ahal izango da 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritako gehieneko mugaraino, beharrezkoa izanez gero.

Dirulaguntza diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100era irits daiteke, gehienez ere 300.000,00 euroko dirulaguntzarekin toki erakunde eta proiektu bakoitzeko.

Deialdia idazteko, kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritako arau esparrua.

Halaber, bat etorritik Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoarekin, kontuan hartu da euskararen erabilaren faktorea Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Horregatik, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

## ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak lehia libreko araubidean dirulaguntzak emateko 2025eko deialdiari. Dirulaguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten, aurreikusitako ezin diren egoerak direlako. Deialdia espedienteari lotuta dago eta erabaki honen I. eranskinean jasotzen da.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikokoaren 2025eko ekitaldiko aurrekontuko "10203. G/459100/76200105 Larrialdiko obrak" partidaren 2025. urtearen 350.000,00 euroko esleipenaren kontura emango dira dirulaguntzak.

Hasieran esleitutako zenbatekoa handitu ahal izango da, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera lortutako urteko zuzkiduraren ehuneko seira arte gehienez ere.

Hirugarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatuari ahalmena ematea obrak izapidetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren egintza eta xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 18a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JAVIER GORBEÑA GARCÍA**

## I. ERANSKINA

### Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeak finantzatzeko gai ez diren eta pertsonentzako arrisku errealak edo potentzialak eragiten dituzten ezustekoei eta premiazko obrei aurre egiteko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak dirulaguntzak lehia librearen araubidean emateko 2025eko deialdia

#### 1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak aurrekontu kredituen kontura premiazko ezusteko gastuak eta larrialdi obrak finantzatzeko lehia librearen araubidean ematen dituen dirulaguntzetarako baldintzak, betebeharrak eta prozedurak ezartzea.

Deialdia arautzen duten oinarriak Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 1eko 24/2024 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren (ALHAOn argitaratu ziren, 117. zenbakian, 2024ko urriaren 14an, astelehena).

Deialdi honen ondorioetarako, ezustekotzat eta premiazko obratzat joko dira 24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko "Xedea eta aplikazio eremua" izeneko lehenengo oinarrian ezarritako xedea, baldintzak eta helburua betetzen dituzten jarduketak.

24/2024 Foru Dekretuaren azalpen zatian adierazten den bezala, oinarri hauetan ezarritako emate prozedura lehia librearena da, laguntzak arin eta azkar izapidetzea lortzeko, presa egoerei eraginkortasunez erantzuteko.

#### 2. Erakunde onuradunen betekizunak

2.1 Deialdi honetan jasotako dirulaguntzen hartzaile izan ahalko dira Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak, udalak (gasteizkoak izan ezik) eta kontzejuak, 24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko "Erakunde onuradunak" izeneko hirugarren oinarrian ezarritako baldintzetan.

#### 3. Dirulaguntzaren zuzkidura eta zenbatekoa

Deialdi honetako dirulaguntza programarako hasierako zuzkidura 350.000,00 eurokoa da, Arabako Lurralde Historikokoaren 2025erako aurrekontuko "10.2.03. G/459100/76200105 Larrialdiko obrak" partidaren 2025. urtearen kontura.

Hori guztia, alde batera utzi gabe zenbateko hori 2026ko ekitaldira birbanatu ahal izango dela, dagoen aurrekontu saldoaren arabera eta 2025eko abenduaren 31n amaitu gabe dauden jarduketan eskaerentarako obrak egiteko epearen aurreikuspenaren arabera, kontuan hartuta 24/2024 Foru Dekretuaren 8. oinarrian eta I. eranskinaren zazpigarren apartatuan adierazitakoa.

Era berean, zenbateko hori Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren urteko zuzkiduraren ehuneko 6ra arte handitu ahal izango da.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 100era irits daiteke dirulaguntza, "Zuzkidura eta zenbatekoa" oinarriaren 4.3 apartatuan ezarritakoaren arabera. Tokiko erakunde bakoitzari gehienez 300.000,00 euroko dirulaguntza emango zaio deialdi honetan.

#### 4. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

4.1. Deialdi honen xede diren laguntzak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik programaren indarraldia amaitu arte eskatu ahal izango dira. Hori gertatuko da aurrekontu erabilgarria agortzen denean, baita, hala badagokio, adostu litezkeen aurrekontu zabalteak agortzen direnean ere. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, web orri honetan argitaratuko da: [www.araba.eus](http://www.araba.eus).

Nolanahi ere, programaren indarraldia, eskaerak aurkezteari dagokionez, 2025eko abenduaren 31n amaituko da.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoa betez, eskaerak berariazko izapidearen bidez aurkeztuko dira, eta egoitza elektronikoa honetan egongo da eskuragarri:

<https://egoitza.araba.eus/es/-/ayudas-imprevistos-y-obras-de-emergencia>.

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/ustekabeko-eta-larrialdiko-obrentzako-laguntzak>.

Programa amaitutakoan, ez da beste eskaerarik onartuko.

4.2. Eskaerarekin batera, 24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko “Eskaerak nola aurkeztu eta horretarako epea” oinarriaren 5.3 apartatua zerrendatutako dokumentuak aurkeztuko dira, oinarri bereko 5.4 apartatua adierazitakoa alde batera utzi gabe.

4.3. Baldin eta aurkeztutako eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak erakunde interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Hori egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eskaeran atzera egin dutela ulertuz.

4.4. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du deialdi honetan eta hura arautzen duten oinarrietan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

## 5. Deialdiaren ebazpena

5.1. Deialdiaren ebazpena “Deialdia ebaztea” seigarren oinarrian ezarritakoari lotuko zaio.

5.2. Diruz lagundutako jardueraren zabalkundea eta publizitatea, euskarria edozein dela ere (liburuxkak, kartelak, argitalpenak...), Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin beharko da.

5.3. Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena egiteko organo eskudunak “Deialdia ebaztea” oinarrian adierazitakoak izango dira.

5.4. Ebazteko epea “Deialdia ebaztea” oinarriko 6.4 apartatua ezarritakoa izango da, eta jakinarazpena oinarri bereko 6.9 apartatua ezarritakoa betez egingo da.

5.5. 2025eko ekitaldian egindako eskaerei, baldin eta onartu ahal izateko nahitaezko baldintza guztiak betetzen badituzte, baina emate ebazpenak gauzatu ezin badira kontabilitate eragiketarako eta administrazio prozedurak arautzeko onesten diren 2025eko aurrekontu ekitaldia ixteko eragiketen ondorioz, larrialdietako hurrengo deialdiaren kargura erantzun gabe, deialdi hori onesten bada.

## 6. Dirulaguntza jasotzen duten erakundearen betebeharrak

Dirulaguntza jasotzen dituzten erakundearen betebeharrak 24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko zazpigarren oinarrian (“Dirulaguntza jasotzen duten erakundearen betebeharrak”) jasotakoak izango dira, bai eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauan dirulaguntzen jarduerarako ezarritakoak ere.

## 7. Gauzatzeko epea

7.1. Dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduketa 2025eko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da, salbu eta emakida ebazpena urtearen azken 5 hilabeteetan onesten bada. Kasu horretan, obra gauzatzeko gehieneko epea 2026ko ekainaren 30era arte izango da.

7.2. Emandako laguntzaren erakunde onuradunak dagokion eskaera arrazoitua aurkeztu ondoren, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak diruz lagundutako obra gauzatzeko epea luzatu ahal izango du. Luzapen hori ez da 6 hilabetetik gorakoa izango, eta hasieran emandako epea amaitu baino hilabete lehenago eskatu beharko da gutxienez.

## 8. Dirulaguntza ordaintzea

Emandako dirulaguntzen ordaintzea 24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko “Dirulaguntzak ordaintzea” bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

Bederatzigarren oinarriaren 9.2 apartatuan aipatzen den epea, dirulaguntza ordaintzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezteko, 2025eko abenduaren 31 izango da, salbu eta emate ebazpena 2025eko azken 5 hilabeteetan onesten bada. Kasu horretan, epe hori 2026ko ekainaren 30ean finkatuko da.

#### **9. Dirulaguntzen justifikazioa**

Dirulaguntzen justifikazioak 24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko "Dirulaguntzaren justifikazioa" hamargarren oinarrian ezarritakoa beteko du.

#### **10. Dirulaguntzak pilotzea eta haien arteko bateragarritasuna**

24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko "Dirulaguntzak pilotzea eta haien arteko bateragarritasuna" hamaikagarren oinarriak ezarritakoaren arabera, emandako laguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabiderekin, betiere garatu beharreko jardueraren kostua gainditzen ez badute.

#### **11. Dirulaguntza galtzea**

Oinarriak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea 24/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko "Oinarriak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea" hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera arautuko da.

#### **12. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

#### **13. Azken klausulak**

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatuta ez dagoen guztia Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko dute, baita aplikagarriak diren gainerako arauak ere.